



Nafar Ateneoa" Poema Bakarrari Sariketaren ebazpena

Epaimahaiaren justifikazioa

Nafar Ateneoak 2020ko ilbeltzean deitutako "Nafar Ateneoa" II. Nazioarteko Poesia Sariketaren epaimahaia Nafar Ateneoaren Iruñeko egoitzan batzartu da. Ines Castiella Imaz andreak, Juankar Lopez-Mugartza jaunak eta Nafar Ateneoko euskara eleduna eta idazkari Josu Jimenez Maiak aho batez erabaki dute sariketara aurkeztu diren 11 idazlanetatik *Agur esateko pintura* izenekoari lehen sari bakarra ematea. Plika irekita, honakoa da egilea:

Jose Mari Zendoia Sainz

Epaimahaia osatzen dugunon iritziz, poema hau teknikoki oso ongi ondua dago, eta hizkera aberatsa du. Ahots helduko olerkari bat nabaritzen da, maisutasunez bere lana garatzen duena. Egileak irakurlea margogintzaren bidetik darama, hiztegi oparoa baliaturik. Olerkariak behin baino gehiagotan irakurtzeko gonbite egiten dio irakurle helduari, eta berrirakurraldietan estuago harrapatzen du, istorioan barneratuz. Bi hitzetan: bide berezi bat agurraren gaia garatzeko.

Eta horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, akta hau sinatu egin dugu

Iruñean, 2020ko otsailaren 11n.

Ines Castiella Imaz

Josu Jimenez Maia



Juankar Lopez-Mugartza